# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 283. zenbakia. 2019ko azaroa




# Amaia Abascal, 20 urte film laburren artean


IRAZABAL
clínica dental
Ainhoa Zulueta
Doktorea
Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Aníbal Alonso Doktorea.
Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00etara
Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu
Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitteren: @ClinicaIrazabal
FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU
IRAZABAL clínica dental
Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com


Ugaro
asesores
• AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
• LAN AHOLKULARITZA
• AHOLKULARITZA JURIDIKOA
-%+X÷
Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com
Agente esklusiboak:
Allianz
Seguros

***ARGITARATZAILEA:***

**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***

**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta-kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**

***ERREDAKZIO TALDEA:***

**Alazne Aiestaran,**
**Amaia Arginzoniz,**
**Estibalitz González,**
**Libe Solozabal**
**eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

**Alazne Aiestaran.**

***AZALEKO ARGAZKIA:***

**Dorleta Vidal.**

***LAGUNTZAILEAK:***

**Santos Aranburu,**
**José Araujo,**
**Maite Askasibar,**
**Isabel Elguezua,**
**José Elguezua,**
**Eskolabarri,**
**Ana Gómez,**
**Antonio Hernández 'Cuco',**
**Jasone Izarra,**
**Patxi López,**
**Valentin Mugarza**
**eta Merche Sarmiento.**

***ARGAZKIAK:***

**Alboka Musika Eskola,**
**Eskolabarri,**
**Valentin Mugarza,**
**Ainara Ordoñez,**
**Angel Organbide**
**eta Dorleta Vidal.**

***PUBLIZITATEA:***

**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**

***INPRIMATEGIA:***

**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***

**Piedi Eizagirre,**
**Ibon Txurruka**
**eta Olatz Vidal.**

***TIRADA:***

**2.425 ale.**

***ISSN:***

**1133-973X.**

***LEGE GORDAILUA:***

**SS-213/1994.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Erronda-kantua

## Hiru mutil

Hiru mutil zebiltzen
hiru neskatxakin,
ezkontzeko asmuan
ustez alkarrekin.
Baiña nunbait bilatu
sonbrerodunekin,
orain ez dute nahi
jornaleruakin.



**(Entzuteko: www.alboka.es)**

# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ......4
Angel Organbide (Argentina)

ELKARRIZKETA ..............5-7
Manuel Moreno

MALLABIAN ZER? ........8-9
Arandoño Larriñaga / Amaia Abascal

MOTZEAN .................10
Isabel Lobianori kalea Mutrikun

SAN MARTIN ..........11-14
Argazkiak, sarituak eta berriak

ESKOLEN TXOKOA ......15
Eskolabarriko ikasleen berriak

ERREPORTAJEA...........16-17
Alboka Musika Eskola

IRITZIA ........................18
Politikariak, arduratu zaitezte...

ZORION-AGURRAK ......19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA .....21
Beharrezkoa da Ermuko plazan estalpe bat ipintzea?

ABENDUKO AGENDA .22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Angel Organbide






**Ia 20 urte daramatza Angel Organbide ermuarrak Argentinan. Zoriontsua da, baina lagunak, senideak eta hemengo mendiak faltan botatzen ditu.**

***- Duela zenbat urte joan zinen Ermutik?***

2000. urtetik bizi naiz Argentinan. Nire emaztea argentinarra da, Buenos Airesekoa, eta bertan bizitzea erabaki genuen. Tigren bizi gara, Buenos Aires hiritik 35 kilometrotara, munduko delta handienaren inguruan, ibai eta naturaz inguratuta.

***- Erabaki erraza izan zen?***

Ez zaila, ez erraza. Abantailak eta desabantailak mahai gainean jarri genituen, eta Argentinan bizitzearen aldeko argudioek irabazi zuten.

***- Nola imajinatzen zenuen leku hori?***

Ez nuen Argentinan bizitzearen inguruko aurreiritzirik. Baina nire emaztea ezagutu izan ez banu, ez zitzaidan inoiz herrialde hau bisitatzea okurrituko.

***- Espero zenuen bezalakoa da? Zerbaitek jo dizu arreta bereziki?***

Oso herrialde europeizatua espero nuen. Nahiz eta hein batean horrela den, Hego Amerika da, ezberdintasun sozial eta krisi errepikakorrekin. Hiri handien inguruan sortzen diren "villa miseria"k jo zidaten arreta, guk txabolismoa deritzogun horiek.

***- Hizkuntzarekin ez zenuen arazorik izango...***

Ez, esamolde eta ahoskera ezberdinetara egokitu nintzen.

***- Zerbait botatzen duzu faltan?***

Bai, etxetik irten eta mendira ibiltzera joatea. Bizi naizen tokia oso laua da, mendiak 500 kilometrotara daude. Eta jakina, lagunak eta familia gertu izatea pote batzuk hartu eta hitz egiteko.

***- Nolakoa da zure egun arrunt bat?***

Emazte eta semeekin gosaltzen dut, semeak eskolara eraman eta lanera joaten naiz. Arratsaldeetan ikasteko aprobetxatzen dut. Eta gauean, denok elkarrekin afaltzen dugu.

***- Zer egiten duzu denbora librean?***

Denbora librean ibiltzera irteten naiz, edo semeekin kirola egitera.

***- Noiz egon zinen Ermuan azken aldiz?***

Aurreko urteko urtarrilean egon ginen Ermuan. Europatik bidaiatzeko aprobetxatu genuen, eta Baztanen ditudan arbasoak bisitatzeko, nire semeek eta emazteak ezagutu zitzaten.

***- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?***

Emazte eta semeen nahien arabera. Nagoen lekuan nagoela zoriontsu izatearekin konformatzen naiz. Hala ere, badakit haiei hango bizi-kalitatea gustatuko litzaiekela. Aprobetxatu nahi dut besarkada handi bat bidaltzeko ezagutzen ditudan eta ezagutu nituen ermuar guztiei, haiek guztiengandik zerbait ikasi ahal izan bainuen, ni neu izateko balio izan didana.

Libe Solozabal

San Antonio
OKINDEGIA
GOZOTEGIA


Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
AIZ
Garraioak, S.L.
☎ 636 95 83 39 (Julen)


AMAIA
HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua


IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



**Manuel Moreno Martin, Euskaltzaleen Topaguneko teknikaria:**

# “Euskaraldiak buelta eman zien hainbat arau soziali”

Aurreikuspen guztiak gainditu zituen Euskaraldiaren lehen edizioak. Euskaltzaleen Topaguneak diseinatu zuen ariketa sozial erraldoi hau –hainbat herritan burututako antzeko praktiketan oinarrituta–, eta erakunde publikoekin elkarlanean Euskal Herri osora zabaldu zuten 2018an. Ordutik *ahobizi* eta *belarriprest* hitzak arrunt bilakatu zaizkigu, datozen hilabeteotan haien esanahia hobeto azalduko diguten arren. Manuel Moreno ermuarra gaian jantzita dago. Bizkaiko eta Arabako herri batzordeen koordinazio-dinamizazioaz arduratu zen 2018an, eta entitateen koordinazioan dabil 2019-2020 zikloan. II. Euskaraldia abian dago, eta laster izango dugu Ermuan ere horren berri, Ermuko Euskaltzaleen Sareak aurkezpen ofiziala egingo baitu abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean.

***- Euskaraldiaren II. edizioa 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean burutuko da, baina prestaketa lanak hasiak dira dagoeneko. Zein da zure egitekoa?***

Nire ardura izango da entitateen parte hartzea sustatzea, koordinatzea eta dinamizatzea, *arigune*ak sortzeari begira.

***- Zer dira bada ariguneak?***

Definizioz, *arigune*ak euskaraz lasai aritzeko guneak edo taldeak dira. Non daude gune edo talde horiek? Entitateetan, mota guztietako entitateetan: herri bateko elkarteetan (kirol, kultur, aisialdi, guraso, auzo elkarte...), dendetan, tabernetan, tailer txikietan, enpresa handietan, Udalean, Eusko Jaurlaritzan, Osakidetzan, erakunde publiko zein pribatuetan. *Arigune*a da bigarren edizio honek dakarren berrikuntzarik handiena.

***- Eta nork osatuko ditu arigune horiek?***

Aipatutako entitate horietako kideek Euskaraldian parte hartu dezakete, *ahobizi* edo *belarriprest* bezala, eta guk hori sustatuko dugu. Baina horrez gain, entitate horietan egon daitezke taldeak ahozko ohiko funtzionamendu-harremana dutenak. Gure proposamena da aztertzea, ea talde horietan dauden kide guztiek euskara ulertzen duten, eta baldintza hori ematen bada, ea guztiek Euskaraldian, eta talde moduan, parte hartu nahi duten. Ahal eta nahi badute, *arigune* bat sortuko dute. Esaterako, baliteke tailer bat administrazio, biltegi eta produkzioan banatuta egotea, eta tailer osoa edo, atal horietako bat bakarrik, izatea *arigune*a. Horrek esan nahi du, Euskaraldiak irauten dituen 15 egunetan, espazio horretan euskaraz funtzionatuko dutela.

***- Zer nolako garrantzia dauka taldean aritzeak?***

Adituen arabera, oso handia, taldeak hartzen duen erabaki horrek babes handia eta zilegitasuna ematen dizkiolako kideen hizkuntz-praktika aldaketari. Norbanakoek euskaraz hitz egingo dute, modu boluntarioan aukeratu duten txaparen arabera. Baina horrez gain, taldeak adostutako erabakia bada, horrek indar handia emango dio praktikari.

***- Eta nola sortuko dira ariguneak kide egonkorrak ez dituzten entitateetan?***

Guk barne eta kanpo *arigune*ak bereizten ditugu. Azaldu dudan tailerraren adibidea barne *arigune*a izango litzateke; herritarrarekiko harremanguneak dituzten entitateetan, aldiz, kanpo *arigune*ak sortuko dira. Tabernak eta dendak dira honen adibideak. Supermerkatu batean 10 kutxa badaude, denak edo, demagun, horietako 4



izan daitezke *arigune* baldin eta supermerkatu hori zabalik dagoen denbora guztian kutxa horietan egongo direnek euskaraz ulertzen badute. Eta esan dut *ulertzen badute* —hitz egingo balute, hobeto—, modu honetan kutxan dauden pertsona horiek ez dute baldintzatuko bezeroak erabiliko duen hizkuntza. Euskara erabiltzeko aukera bermatuko da, eta leku hori, ondo identifikatuta, *arigune* bihurtuko da, kanpo *arigune*.

***- Eta nola zabalduko da proposamen hau enpresa, elkarte, denda eta taberna guztietara?***

Hori da lana. Aurrerantzean daukagun egitekorik handiena da (bai herrietako batzordeetan bai Euskaraldian orokorrean) azaldu dudan proposamen hau entitate guztiei helaraztea. Euskaraldiaren lehen edizioan mundu guztiari egin zitzaion Euskaraldia sustatzeko proposamena (entitateei barne). Hau da: “animatu zuen kideak *ahobizi* edo *belarriprest* izan daitezen”. Bigarren edizio honetan oinarria bera da, eta *arigune*ak plus bat dira, gehigarriak. Entitate guztiei egingo diegu proposamena, eta aipatu ditudan bi baldintza horiek betetzen dituztenek *arigune* bezala emango dute izena. Oraindik urtebete falta da Euskaraldirako, eta aurretik ditugun hilabeteak hau azaltzen emango ditugu.

***- Euskaraldiaren herrietako batzordeak zeregin honetan ere laguntzeko prest daude?***

Bai, euren ardura herrietako entitate txikiei azaltzea izango da, eta horretarako laguntza handia izango dute. Topagunea, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko erakundeak aldiz, entitate

## “Herri batzordeen lanak izugarrizko garrantzia dauka”

LURPE LURPE
ERMUA ERMUA



Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

handiez arduratuko dira. Izan ere, 6 bat bilera egin ditugu dagoeneko, milaka kide edo langile duten 100 entitate baino gehiagorekin.

***- Herri batzordeen lanari zer nolako garrantzia ematen diozue?***

Izugarria! Osoa! Entitate handiekin egiten dugun lanak eragina izango du, seguru, baina aurrekoan bezala, herri batzordeek egiten duten lana izango da eragin handiena izango duena. Aurrekoan 400 batzorde inguru osatu ziren, eta bigarren edizio honetan ez dugu gutxiago espero. Baina hauek aurrera egin ahal izateko, elkarlana ezinbestekoa da. Herri batzordeetan, euskalgintzak eta tokiko administrazioek (hau da, Udalek) elkarlanean jardun behar dute, hau da, hanka soziala eta hanka instituzionala, batera.

***- Espero zenuten lehenengo edizioak horrenbesteko oihartzuna izatea?***

Sumatzen genuen arrakastatsua izango zela, baina marka guztiak hautsi zituen: parte hartzaileen kopurua, herri batzordeen kopurua eta aniztasuna, zenbat entitate etorri zitzaizkigun euren borondatez… Aktibazio eta ilusio handia sortu ziren, eta balorazio oso positiboa egiten dugu. Horrez gain, sortu ziren batzorde horietatik Euskal Birusa bezalako euskara elkarteak sortu dira hainbat herritan. Poztekoa da. Bestalde, euskaraldia.eus webgunean bizipenen berri jasotzeko txokoa zegoen, eta hor istorio hunkigarriak irakurri zitezkeen. Balorazio kuantitatiboari erreparatuta, 400 batzorde inguru osatu ziren, eta horrek esan nahi du milaka boluntario ibili zela herrietan Euskaraldia bultzatzen. Horrez gain, 225.000 *ahobizi*k eta *belarriprest*ek eman zuten izena. Nabarmentzekoa da gainera emaitzen ikerketa egin izana, ikerketa ez delako ohiko praktika. Hiru galdetegi egin ziren eta 18.000 lagunek erantzun zituzten hirurak. Euskaraldia bukatu eta 3 hilabetera, errotutako hizkuntza aldaketa %5,6koa zen. Adituek diotenez, hizkuntza praktika batean %5,6ko aldaketa oso handia da. Euskaraldiak hasiera eman zien praktika berriei, eta hainbat arau soziali buelta eman zien, baina hasiera baino ez zen izan.




***- Inolako eraginik izan zuen entitateetan?***

Bai. Entitate handiez ari bagara, batzuek aitortu ziguten Euskaraldia oso ondo etorri zitzaiela euren Euskara Planak garatze aldera. Beste batzuk Euskara Planak martxan jartzera bultzatu zituen. Hori da gure helburuetako bat.

***- Hain arrakasta handia izan arren, hutsunerik sumatu zenuten 2018ko edizioan?***

Bai, komunikabideetan agertu izan den bezala, desoreka handia egon zen *ahobizi* eta *belarriprest*en kopuruen artean. Gehienek *ahobizi* aukeratu zuten, baina gerora konturatu ginen ez genuela asmatu ondo ulertarazten zer diren bata eta bestea. Eta hori azaltzeko ahalegin berezia egingo dugu bigarren edizioan. Bai rol bat bai bestea aukeratu ahal izateko, oinarrizko ulermena behar da. Hortik aurrera, ez da gaitasun edo aldekotasun kontua, jokaera kontua baizik: bakoitzak aukeratu behar du 15 egun horietan zer konpromiso izango duen bere buruarekin. *Ahobizi* izango dira euskaraz ulertzen duten pertsona guztiekin, egoera guztietan, euskaraz egingo dutenak; *belarriprest*, aldiz, euskaraz ondo jakin arren, egoera eta solaskidearen arabera, hizkuntza aukeratuko dutenak. Aurrekoan ez genuen erreza izan, eta oraingoan ere ez dugu guztiz konponduko, baina ahalegin berezia egingo dugu bi rolak hobeto ulertarazten.

Dorleta Vidal

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

udal euskaltegiak
Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

## Mallabiko eraikin esanguratsuenak:

# Arandoño Larriñaga baserria (V)

**Eraikinaren hainbat elementu direla-eta, 1997an babestu behar den ondare bezala katalogatu eta inbentariatu zen; 2008 urtea geroztik, Monumentu izendapena du.**


Arandoño Larrinaga. Ahozkotasunean Larriñe.

**Eraikitze data:** eraikin nagusia XVI. mendean dago datatuta eta egindako azterketa arkeologikoaren arabera, elementu desberdinak erantsi zaizkio bertan bizi izan direnen premien arabera, tartean ogia egiteko XIX. mendeko labea.

**Kokapena:** Arandoño auzoan, Hanbreko Eguzki-Alde jatetxe ostetik behetik gora doan bidean, eskuma aldean geratzen den bigarren etxea da.

**Izena:** modu desberdinez dokumentatu izan da, besteak beste, Arandoño Barrena, Arandoyno Larrina edota Arandoño Larrinaga. Ahozkotasunak baina, belaunaldiz belaunaldi Larriñe lez gorde du.


Sarrerako gurutze latindarra, bieira eta larroseta.

**Ezaugarri arkitektonikoak:** jatorriz isuri biko teilatua eta lauki zuzen formako oina duen arren, ezker-eskuma gehitutako bi eraikinek erabat luzatzen diote itxura. Alde batekoa, etxerako ogia egosteko labe bezala erabili izan da; bestekoa, temajana lez, gordetzeko oraintxe patatak, gero automobilen bat… Sarreran hareharrizko piezekin osatuko arku karpanel dotorea du eta nabarmentzekoa da ere haren gaineko gurutze latindarra, peana baten bermatua; gurutzearen oinetan Donejakue Bideko ikurra den bieira bat eta larroseta bat ditu harrian landuta. Kanporako ate baten kontran zegoen ur-bedeinkatu ontzia, sarrerara ekarri dute azken berriztapenean. Beheko solairuan, eskailera batzuk jetsi eta upeteixe zegoen, bodega; bertako familiaren premiak logela bihurtu zuenetik, behegelie izango zen. Hantxe bueltan-bueltan ezkatza, ganaduaren korta, astotokia eta txerritokia ere.

**Jabegoa:** hazienda Sabino Zabalaren oinordekoei erosi ostean, egungo jabeak José Araujo eta Merche Sarmiento dira, etxe eta bere ingurumariaren goitik beherako berriztatze lanetan dihardutenak.

**Monumentu izendapena:** 1997koa da eraikinaren lehen azterketa arkitektonikoa, balio arkeologikoa izan lezakeela deklaratuz. Duen interes kulturala tarteko, 2008ko ekainaren 24ko datarekin Monumentu izendatu eta Euskal Ondare Kulturalaren zerrendan sartuko da. Eraikin multzoaz batera, inguruko lurrak eta baserrirako sarbidea ere babestuko dira, ingurumen eta ikuspegi aldetik duten balioa zaintze asmoz.

**- Bitxikeriak:** etxeko umeak Artixeko auzo-eskolara joaten ziren, landaz landa eta pixkat koskondutakoan bidez bide Mallabikora.

Larriñe paraje ederrean dago kokatuta: bere sastai edo etxaurre zein etxostetik mendi eta tontor ugari ikusten dira, besteak beste, Oiz, Arietzu, Santamañezar, Anboto, Eguarbitza, Urko, Otei eta Altxorrixo.

Estibalitz González


Ur-bedeinkatuaren zuloa eta Aittaren egiteko gurutzea.




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

### Amaia Abascal, Asier Errasti Film Laburren Txapelketako epailea:

# “Film labur bat egitea da betetzeke dudan ametsa”

**Duela 20 urte ekin zion bideari Eibarko Asier Errasti Film Laburren Txapelketak, eta ordutik dabil bertan endredatuta Amaia Abascal. Azken 15 urteak Mallabian eman dituen eibartar honek ehunka film labur ikusi eta epaitu ditu. Guztien artean, *Nana* (2006) nabarmentzen du.**



***- Asier Errasti Film Laburren Txapelketa bukatu berri da (azaroaren 9an). Zer nolako balorazioa egiten duzu?***

Oso positiboa. 171 film labur aurkeztu dira: horietako 7 euskaraz eta 14 atzerriko hizkuntzetan. Generoari ere erreparatzen diogu beti, eta emakumezkoek sortutako 51 film aurkeztu dira, iaz 31. Guzti horietatik, lehen hautaketa egiten dugu eta 50 bat film sartzen ditugu lehiaketan. Horrek dira publikoak ikusiko dituen filmeak, eta hortik irtengo dira kategoria ezberdinetako irabazleak.

***- Nortzuk osatzen duzue epaimahaia?***

Orain arte, 19 urtez, Eibarko Plano Corto elkarteko kideok osatu dugu epaimahaia. Guk antolatzen dugu txapelketa (Eibarko Udalaren laguntzarekin), eta gu arduratzen ginen horretaz. Aurten, XX. edizioa izateak ospe handiagoa eman diguedo, eta kanpoko epaimahaia izan dugu. Pena eman dit aurten lan hori ez egin izanak, aurretiko aukeraketa egiten duzunean, gehienetan argi duzulako zeintzuk diren zure gustukoenak, eta epaimahaikideen arteko desadostasunak faltan botatzen ditut! Baina egia da horrelako txapelketek beti izaten dutela kanpoko epaimahaia.

***- Zer baloratzen da horrelako lehiaketa batean?***

Dena. Zuzendariaren lana, gidoia, interpretazioa, argazkigintza, musika... Dena bere osotasunean. Eta niretzako ere oso garrantzitsua da istorioa bera hunkigarria izatea, gogoratzeko modukoa izatea.

***- Urte hauetan ikusi dituzun filmetatik, baten bat aipatzekotan...***

*Nana*. Minuto bateko iraupena zuen, eta film labur bat zenbat eta laburragoa izan, orduan eta gustukoagoa dut. Inmigrazioari buruzko istorioa zen, eta txapelketa irabazi zuen.

***- 20 urte eta gero, txapelketa honek badu izen bat. Bere hastapenak gogoan dituzu?***

Bai, nola ez! Asier Errasti nire laguna zen, eta elkarrekin egiten genuen lan Eibarko telebistan, KTBn. Film labur bat egin zuen eta ni *script*az arduratu nintzen. Orduan bururatu zitzaion txapelketa antolatzea, genero hau bultzatzeko. Elkarte bat sortu genuen (Plano Corto). Txapelketa burutu eta hurrengo astean hil zen Asier. Bat-bateko heriotza izan zen, eta 27 urte zituen. Txapelketari bere izena jartzea erabaki genuen gero, baina urte asko igaro dira ordutik, eta batzuk ez dakite nor izan zen Asier. Hori dela-eta, aurten bere buruari buruzko dokumentala prestatu du Plano Cortoko kide batek, Natalie Hickeyk.

***- Zein da gaur egun txapelketaren helburua?***

Dirua lortu nahi dugu hazteko. Aurkezle ezagunak eta zuzendariak ekartzeko, *master class*ak antolatzeko...

***- Eta film laburren txapelketaren eromena bukatutakoan, zer?***

Metalgintzan egiten dut lan, baina film labur baten gidoia egitea da betetzeke dudan ametsa. Tailerrean lanean hasi baino lehen, gidoilari eta aktoreen zuzendaria izateko ikastaroak egiten nituen. Asko idazten nuen, baina denbora faltagatik alde batera utzi nuen hau guztia. Egunen batean, baina, berriro ekingo diot.

Dorleta Vidal




TXALAPARTA TABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua)

ENKARGVAK 943 030 299

## IVAN CORBILLON AKTORE ERMUARRAK IRAGARKIA EGIN DU




Genero-indarkeriaren kontrako Gobernuaren Ordezkaritzak eraso sexualen kontrako sentsibilizazio kanpaina abiatu du. Kanpaina honetarako sortu duten iragarkian Ivan Corbillón aktore ermuarra ikusteko aukera dago, beste hainbat gizonezkoen artean. YouTuben ikusi daiteke.

## PILOTARI ERMUARRAK AGERTU DIRA EITBN

Euskal Telebistako bigarren kateak emititzen duen *Vascos por el mundo* saioan, Floridako Tampa hirian bizi diren pilotari talde batekin batu ziren, hango Vizcaya jatetxean hamabostean behineko pilotarion hitzordua aitzakia hartuta. Tartean bi anai ermuar ziren, Jose eta Juan Txurruka, pilotan jokatzera gazterik joandakoak hara eta Rikardo Txurruka pilotariaren anaiak, hau gertuagoko frontoi-hormetan aritutakoa.

## ONGARAIKO BIZILAGUNEK ESKATZEN DUTE EUREN AUZOKO ARGIZTAPENA HOBETZEA

Astelehenetik ostegunera 19:30ean, kazerolada egiten dihardute Ongarai auzoko bizilagunek. Modu zaratatsu honetan argiztapena hobetzeko eskaera egiten diote Udalari.

# Mutrikun kalea Isabel Lobianok




Kostaldeko udalbatzak aho batez onartu ondoren, Isabel Lobiano izena jarri zitzaion Goiko Arban sortu zen kale bati. 1583an Ermuan jaioa, aita ermuarra eta ama mutrikuarra zituen, eta bikotearen alaba bakarra izan zen Ysabel Lobiano Ybasseta. Bizi zuen maitasun istorio ederrari esker iritsi zaigu bere berri, *Historia de un rapto* eta *Árbol de sinople* liburuetan zehaztasun osoz argitara emanez. Ermuan eta Mutrikun hainbat ondasunen jabe izango zen, besteak beste, Berriatua dorrea, Sulengua lez ezagunagoa den Erdi Aroko eraikin esanguratsua. 1661ean, seme Pedrorekin batera, konbentu bat fundatuko du Mutrikun, haren mantenurako behar den diru-ekarpena eginez.

# Danobatgroupek euskararen eguneko lehiaketa abiatu du

“Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia” lemapean kaleratu du beste urte batez Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.

Danobatgroup industri taldea makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soraluce, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea. Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari begiratuz eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz lemak dioen moduan euskara da batzen gaituen esentzia hori eta euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia egunerokolanean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan, ikerketa eta garapenean... Baina egunerokotasunetik haratago gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik, eta presentzia izatera bideratu batzen gaituen hori.

Danobatgroupek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du. Horren adierazgarri taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak...

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez esan bezala Danobatgroupek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke taldeko euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez euskararen eguneko hurrengo lehiaketaren bidez.

Lehiaketan parte hartzeko ondorengo helbidean sartu behar da: https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html. Galderei erantzuteko Danobatgroupek bere eguneroko lanean erabilienak dituen hitz teknikoz osatutako hiztegian hainbat kontsulta egin beharko dira honako esteka honetan: https://www.danobatgroup.com/eu/euskara eta hiztegian sartzeko hitz berriren bat proposatu. Abenduaren 3ra arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean Basque Culinary Centeren eskutik bi lagunentzako 360ºko esperientzia gastronomikoa izateko aukera zozkatuko da.






# XXX. SAN MARTIN AZOKA

Argazkiak: Valentin Mugarza, Ainara Ordoñez eta Dorleta Vidal.





**ESKERRIK ASKO GURE 265 LAGUNTZAILE GUZTI-GUZTIEI, EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!**

**TALOGINTZA:** Mari Paz Araiztegi/ Mari Nieves Arregi/ Aner González/ Maritxu Etxebarria/ Maitasun Idigoras/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoetxea/ Lutxi Alegria/ Maite Areitioaurtena/ Ignacio Ciarsolo/ Mari Karmen Urkidi/ Xabier Urkidi/ Unai Urkidi/ Arrate Maguregi/ Mertxe Agirre/ Marian Ruiz/ Amelia González/ Txume Zumeaga/ Ziortza Zelaia-Zugaza/ Miren Bego Ugena/ Maitane Millán/ Idurre Zuazua/ Iratxe Arrizabalaga / Olatz Mugarza/ Josu Gómez/ Andrea Díez/ Victor Lamas/ Jon Saez/ Olatz Masié/ Martin Solozabal/ Enaitz Mugerza/ Nerea Eizagirre/ Lourdes Odriozola/ Haizea Manso/ Lorea Txapartegi/ Amaia Berrizbeitia/ Arantza Cañamares/ Irune Aranberria/ Xabi Goikoetxea/ Asier Cascán/ Elena Antón/ Maitane Mugerza/ Malen Eizagirre/ Olatz Santos/ Oihane Vega/ Leire Gorritxategi/ Maddalen Arenaza/ Rosa Sánchez/ Bea Palacios/ Iñigo de la Peña/ Silvia Calvo/ Ander Prol/ Aitor Arrizabalaga/ Lidia Jiménez/ Natalia Arrizabalaga/ Izaro Areitioaurtena/ Urdin Txurruka/ Maia Urkidi. **TXIKURIXAK:** Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Antxon Ziarsolo/ Arantxi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/ Jose Antonio Muñoz, Gordo/ Andoni Esmeralda/ Roge Bouzo/ Manu Arnal/ Miguel Fernández/ David Elejalde/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Idoia Zamakola/ Txebis Gorritxategi/ Rosa Areitioaurtena/ Inma Pagaldai/ Bea Izarra/ Natalia Arrieta/ Rikar Txabarri/ Elias Uriarte/ Begoña Infante/ David Gómez/ Nerea Iriondo/ Paul Yarza/Alaitz Fernández/Ainhoa Piñeiro/ Naroa Beitia/ Ines Arano/ Ekaitz Amezua/ Axier Alvarez/ Iratxe Odriozola/ Ane Odriozola/ Libe Solozabal/ Ane Izagirre/Nerea Ortega/ Julen Rubio/ Alex Alonso/ Iñigo Ugena/ Julen Gastón/ Olatz Arriaga/ Amaia Arrondo/ Jone Ojea / Isabel Menéndez/ Alex Egido/ Sonia Fernández/ Toñi Montero/ Rubén Yebra/ Eva Fernández/ Juanmi Bravo/ Juanma Rodríguez/ Eneritz Arriaga/ Araitz Barruetabeña/ Miren Iturriagaetxebarria/ Estitxu Olano. **MUNTAIA/DESMUNTAIA:** Endika Fernández/ Juanjo Solozabal/ Jabi Vidal/ Josu Garitagoitia/ Valentin Mugarza/ Fernando Aranberri/ Aitor Ogiza/ Ramón Redondo/ Mikel Alberdi/ Esther Larreategi/ Lidia Jiménez/ Olatz Santos/ Nerea Oliver/ Amaia Arginzoniz/ Naroa Beitia/ Silvia Ganuza/ Xabi Goikoetxea/ Maite Yarza/ Paule Gorritxategi/ Aroia Lejardi/ Alex Solozabal. **TIKETAK ETA KARTELAK:** Idoia Narbaiza/ Yolanda Unamuno/ Mª Angeles Landaarroitajauregi/ Patxi Goitandia/ Marga Pérez/ Juantxo Díez/ Ramón Redondo/ Jone Redondo/ Aitzol Redondo/ Susana Veloso. **KALABAZA-PORRA:** Joana Díaz/ Mikel Madarieta/ Jokin Aranburu/ Danel Gorritxategi/ Amaia Sangroniz/ Paule Gorritxategi. **SAIHESKIA:** Lorea Txapartegi/ Oier Araiztegi/ Oier Egaña/ Alex Idigoras/ Jokin Txapartegi/ Aintzane Plaza/ Gorka Alzaa/ Irune Yarza/ Gorka Elgea/ Aroia Lejardi/ Mariano Casado/ Jesús Gómez/ Manolo González/ José Antonio Lejardi/ Pedro Arrizabalaga. **BURUKO ZAPIAK:** Mari Karmen Urkidi. **UDA-LAK/ERAKUNDEAK:** Ermuko Udala/ Mallabiko Udala/ Kutxabank/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. **EPAIMAHAIKIDEAK:** Juan Carlos Abascal/ Beatriz Gámiz/ Nahia Ruiz/ Almu Maeso. ERRIFAK: Marisabel Garitagoitia/ Angel Bravo/ Montse González/ Ramón Redondo/ Jone Redondo/ Aitzol Redondo/ Spara arkitektoak/ Anboto eta Urreta burdindegiak/ Beta elektrizitatedenda/ Solozabal estankoa/ Amaia Urkizu eta Miguel harategiak/ MT ileapaindegia/ Feredu Solutions inpermeabilizazioak/ Kokko, Idoia, Sehiga eta Quetzal jantzidendak/ Gauzak kinkiladenda/ Sagardui poltsadenda/ Capero´s, Dakota, Déjate Querer, Ertz, Giroa, Goien, Hanigan's, Herga, Infreñu, Karabixa, Karikato, London, Lurpe, Mendiola, Sagarra, Secretos, Sorgin, Titanic, Torrekua, Txalaparta, Txantxiku, Xagua, Yomy eta Zutabe tabernak/ Mayte urdaitegia. **ERAKUSLEIHO LEHIAKETA:** Ocón argazkidenda/ Senen bitxidenda/ Anboto eta Urreta burdindegiak/ Abeletxe egoitza/ Arrieta elektrogailuak/ Egolek elektrizitatedenda/ Solozabal estankoa/ Elur estetika zentroa/ Mari frutadenda/ Txutxerias eta Villa de Ermua gozodendak/ Berria gozotegia/ Miguel eta Danotz harategiak/ Irale hortz-klinika/ Dotek igeltseritza/ Ainner, Enaia, Mado´s, Malla, Marfil eta Monje ileapaindegiak/ Cocoliso, Dulce Bebé, Izarbi, Kokko, Koopera, Sehiga eta Quetzal jantzidendak/ Gauzak kinkiladenda/ Maribel eta Xiripot liburudendak/ Mariasun loradenda/ Procolor margodenda/ Alboka Musika Eskola/ Zapatxiki oinetakoak/ Arriaundi okindegia/ Artarrai oparidenda/ Itze optika/ Sagardui poltsadenda/ Hannigan's taberna/ Mayte urdaitegia. **BESTELAKOAK:** Jon Larrañaga/ Alain Landarroitajauregi/ Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzisidor/ Txema Araiztegi/ Aiert Izaguirre/ Jator Gimnasioa/ Alberto Zuazua/ Iñigo Pro/ David Gomez/ Aitor Gartzia/ Esteban Goikoetxea/ Iñaki Arano/ Bego Agirregomezkorta/ Anittu-goiko, Erlia eta Eskiñe baserriak/ Luken Aranburu. **TALDEAK:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Malengo eta Lurpe Elkarteak/ Zeramika Eskola. **ETXEKOAK:** Joseinas Larrañaga/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Eider Gisasola/ Hiart Redondo/ Unai Rodríguez/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Nerea Berriozabal/ Gaizka Areitioaurtena/ Marines Txurruka/ Eli Txurruka/ Tere Uriarte/ Nerea Izarra/ Ane Sáenz/ Estibalitz González/ Alazne Aiestaran/ Dorleta Vidal/ Piedi Eizagirre/ Igone Amesti/ Amaia Arriaga.




# san martin azoka · kalabaza · erromeria ·

san martin azoka · talogileak · postuak · dantzak




hanigan's
Irish tavern
Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.
Komentukua z/g · 943030527 WiFi

Plan B
Coffee Lounge
Gin & Beer

Bitxi-denda Tailer propioa Erloju-denda
Senén
1978
Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte
San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com




SAN MARTIN AZOKA
EUSKARAZ ETA EUSKARAREN ALDE
EUSKARA PLAZARA
Euskal Birusa








Ez da magia herrilana da!








Ekonomia Ituna
zerikusi handia... nirekin!
Eta euskal herritar guztiekin; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorroztasunez eta sentsibilitatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.
Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA

## SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Epaimahai honek aukeratu ditu aurtengo San Martin Azokako sarituak: Bizkaiko Erlazainen Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Jatorri-Izendapeneko Bittor Rodríguezek, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorikak, Euskal Biruseko Asier Ibaibarriagak, Miren Astarloa herriko ordezkariak eta Juan Carlos Abascal Ermuko Udaleko ordezkaria.

**FRUTA ETA ORTUARIAK**
1. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).
2. saria: José Antonio Fernández Vázquez (Ermua).

**GAZTA**
1. saria: Patxi Baskaran, San Marina baserria (Markina).
2. saria: Eñaut Gallastegi, Onandia baserria (Mallabia).

**OGIA**
Luis Mari Osa, Mañe baserria (Mallabia).

**EZTIA**
Milalore eztia: Iñigo Macias (Orozko).
Txilar eztia: Igor Merino (Barakaldo).

**SAGARDOA**
Andoni Ojanguren (Lezama).

**TXAKOLINA**
Amaia Aretxabaleta (Lezama).

**AIPAMEN BEREZIA**
Mariasun Mendibe, Etxekone baserria (Mallabia).













## TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK

1. saria, 400 euro: 1182.
Irabazlea: Ertz taberna (argazkian).
2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 980.
Irabazlea: Goimek lantegia.




## ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. saria: Senén bitxidenda.
Epaimahaiak baloratu du erakusleihoa ondo argiztatua egotea, ukitu bitxi bat emanez eta dendarekin lotura egin kolore eta konposizioarekin lortutako urre giroarekin.



2. saria: Miguel harategia.
Epaimahaiak baloratu du erakusleihoan azokarekin zerikusi zuzena duten elementuak integratu izana, keinu dibertigarri bat eman eta publiko guztiei eta batez ere umeei gustagarri izaten ahaleginduz.



## MADDALEN ARENAZAK IRABAZI ZUEN KALABAZAREN PORRA

Maddalen Arenaza izan zen gehien hurreratu zena kalabazaren pisura: 70,80 kilo. Guztira 256 apustu egin ziren, eta Maddalenek 180€ jaso zituen.









Drogetenitturri, 283 zk.






# San Martin Azokan parte hartu genuen



Urtero bezala Euskal Birusa Elkarteak antolatzen duen San Martin Azokan parte hartu genuen. 3. zikloko ikasleak izan ziren azokako postuko arduradunak, irakasleen, langileen eta gurasoen laguntzarekin. Azokan postua ipini zuten eta bertan saldu ziren produktuak eskolako familia guztiek borondatez emandakoak izan ziren. Egun horretan ikasleak oso urduri egoten dira, postuan saltzen egotea erreza ez delako. Postuan soberan geratu ziren produktuak Ermuko Gurutze Gorrikoei eman genizkien. Hango boluntarioek beharra duten familiek eskertuko zutela esan ziguten. Ea datorren urtean ere, zerbait eramatea lortzen dugun! Azokan postua ipintzeaz gain, eskolako irakasleek Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailakoentzako eskulan tailerrak antolatu zituzten Haur Hezkuntzako geletan.

# Azterkosta programa burutzeko Debara bidaia

Urriaren 30ean, asteazkenean, eguraldia lagun izan zutelarik, 6. mailako ikasleak Debara joan ziren Azterkosta Proiektuari bukaera emateko. Irteera honetan, gelan saio teorikoetan landutakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten. Ingurunea aztertuz, datu jasoketa eta uraren analisia egin zuten. Egun honetan jasotako datu guzti hauek Bilboko Eusko Jaurlaritzara bidali zituzten, eta bertatik “Coastwatch” programa europarrera. Bertan ikusitako animaliak eta landareak identifikatzen primeran igaro zuten goiza eta, lana egin ondoren, bazkalostean, hondartzan jolasteko aukera ere izan zuten trenera joateko ordua ailegatu zen arte.



# 6. mailakoak kontu kontari eskolako liburutegian



“Ipuina” proiektuari bukaera bikaina emateko, 6. mailakoek 2. mailako ikasleei ipuinak kontatu zizkieten. Ikasturte hasieratik aukeratutako ipuinak landu ondoren, nagusiek irakurketa bikaina egitea lortu zuten. Txikiek arreta osoz jarraitu zituzten 6. mailako ikasleek kontatutako ipuinak. Ekintza hau egiteko eskolako liburutegia aukeratu zuten bertako giro gozoa aproposena zela iruditu zitzaielako.







# Alboka Musika Eskola, 25 urteko ibilbidea

**Maria Elena Iturriagagoitia, Silvia Izarra eta Eva Zubizarreta musika irakasle ermuarrek sortu zuten Alboka Musika Eskola. 1994. urtea zen, eta handik gutxira batu zitzaizkien Natalia Atxa, Elisabeth Sarriugarte eta Maite Askasibar. Azken hauekin bildu gara eskolaren ibilbideari errepasoa egin, eta urteurrenari buruzkoak jasotzeko.**


Alboka Musika Eskolaren gabonetako entzunaldia (2018).

VI. Mendeurrena kaleko lokal batean entzun ziren Alboka Musika Eskolako ikasleen lehen akordeak, Doan zapata-denda ohiaren aurrean. Musika akademia bezala jarduten zuten garai hartan, eta gitarra, piano, akordeoia, klarinete eta solfeoko eskolak ematen zituzten. Urte batzuk igaro zituzten bertan, hiruzpalau, eta lekuz aldatu ziren gero. Ordurako gitarrarako irakaslea den Natalia Atxa, hizkuntza musikala, abesbatza eta pianoko irakaslea den Elisabeth Sarriugarte, eta idazkaria den Maite Askasibar bertako langileak ziren.

Kokapen berrien bila, tren geltokiko eskoletara eraman zituzten hizkuntza musikaleko klaseak; Zinean egokitutako gela "hotz" batzuetara, aldiz, instrumentuak eta talde instrumental txikiak. Eskaintza zabaltzen hasi zen orduan, eta perkusioa, biolina, tronpeta eta saxofoiko eskolak ematen hasi ziren. Momentu hartan sortu zen eskolako banda ere, Silviak zuzentzen zuena.


Eskolako ikasleak (2004).

2004ko urtarrilean Goienkale kalean dagoen egungo egoitzara joan ziren. "Bulegoa dagoen lekuan, beheko pisuan, Areitioaurtena tailerra zegoen, eta horren gainean etxe bat —dio Maitek—. Barrua hustu, kanpoko harriak gorde, eta musika eskola eta haurtzaindegia eraiki zituzten". Izan ere, ekimen pribatua den arren, Ermuko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jasotzen ditu Albokak.

Hogeita bost urte hauetan ehunka ikasle formatu dira bertan, musikan zein kantuan. Eta abesbatzekin hasieratik izan duten lotura estua azpimarratu du Nataliak, eskolaren sorrera berak ere abesbatzekin harremana duelako. Umeen Alboka abesbatza osatu zuten eskolaren hastapenetan, nahiz eta gerora taldea desagertu zen. Eta duela urte batzuk, Pispillu abesbatzako zuzendaria zendu zenean, Elisabethek hartu zuen horren ardura. Gizonezkoen Abeslariak abesbatzarekin batu zuten Pispillu, eta Alboka Musika Eskolaren baitara sartu.

### Gorabeherak

Aho batez onartzen dute musikaren irakaskuntzan gauzak asko aldatu direla azken 25 urte hauetan. Esaterako, gaur egun inoiz baino errazagoa da musika ikastea. "Solfeoa ez da lehen bezain zorrotza", diote. Eta gainera teknologia berriek erraztu eta samurtu dituzte irakasle eta ikasleen zereginak. Oso ohikoak dira ordenagailuak eta arbel digitalak, eta aurten gainera, metodologia interaktibo berria abiarazi da hizkuntza musikala lantzeko.

Dena den, musika ikasteaz gain, beste gauza batzuk eramaten dituzte umeak eskolara. Batzuk lagun bila do-

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

optika
itze
✓ Entzumenaren dohaineko kontrolak
✓ Audifonoetan azkenengo teknologia
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

az, beste batzuk euskara lantzeko, eta badaude ere matematiketan arazoak dituztenak. “Azken hauei musikak lagundu ahal die, musikak eta matematikek harreman oso estua dutelako —dio Elisabethek—. Matematiketan ondo ez dabilena, arazoak izango ditu musikarekin, eta honek lagundu ahal dio, denborak eta erritmoak kontatzeak burua ordenatu eta argitzen duelako”.

Arrazoiak arrazoi, 200 ikasle inguru ditu aurten Albokak, adin guztietakoak: 5 urtetik 70 urtera. Soka- eta moderno-taldeak daude, 2 trikitixa-talde, hainbat gitarra-talde mailaren arabera, banda handi eta banda txiki, nagusien eta txikien abesbatzak, batukada-taldea… talde mordoa! “Baina urtetik urtera kideak aldatzen dira, matrikularen arabera bajak eta altak daudelako, eta zaila da urte batean 4 edo 5 abesti prestatzea”, azaldu dute.

Eskolako ikasleak izan ziren Ainhoa Zuazua abeslaria, eta Danel Ferreño bateria-jotzailea (Hesian eta Stai Zitto), eta irakasleek euren esku dagoen guztia egiten dute umeek musika ikasteaz gozatzeko. Esaterako, zazpi urteko umeekin txandakako eskolak ematen dituzte, eta hauek musika eskolan dauden instrumentu guztiak probatzen dituzte, hiru astez bakoitza. Horrela, 8 urterekin, euren gustuko musika-tresnarekin trebatzen hasi daitezke.


Alboka Abesbatzaren kideak (1994).

**Ospakizunak**

Euren urteurrena Santa Zezilia inguruan ospatuko dute, nola ez. Azaroaren 20an kalejira egingo dute, eta 22an ohiko Santa Zeziliako erakustaldia Txindurri Dantza eta Txistu Taldearekin batera Antzokian. Larunbatean, hilak 23, kalejira eta bazkari erraldoia egingo dute merkatu plazan. Egungo eta aspaldiko ikasle eta irakasleei zabaldu diete gonbidapena, eta giro ederrean ospatuko dute mende laurdena: karaokea, *photocalla* eta eszenatokia ipinita, kantu eta musikarako aukerak ez dira faltako.

Horrez gain, 2020ko ekainaren 19an azken ekitaldia burutuko da, eta musika eskolako abesbatza eta bandetako ikasle ohiak elkartu eta abesti pare bat elkarrekin abestuko dute. Gainera, sorpresak egongo dira, baina momentuz ezin dute ezer aurreratu.

Eta hemendik aurrera, zer? Eskolaren erronka da egungo taldeak mantentzea eta urtean zehar egiten dituzten ekitaldietan parte hartzen jarraitzea, eta ez da gutxi! Diru-laguntzak eta jaiotze-tasa behera doazen honetan, ez baita erraza aurrera egitea. Eskerrak gogoak eta adorea ez zaiela falta.

## “Gaur egun inoiz baino errazagoa da musika ikastea”

Dorleta Vidal

Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria
943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com




ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

ATSEGIN
Gosariak, pintxoak, afariak
-
Egunero zabalik
8:00etatik aurrera
-
San Pelaio zeharbidea 4
608 736 900

# Politikariak, arduratu zaitezte garrantzitsuaz behingoz!



Ana Gómez

Azken hauteskunde orokorrak deitu zituztenean, jakin izan nuen alderdi politikoei ematen zaizkien hautesle-erroldaren kopietatik baja emateko aukera dagoela. Legeak baimentzen du, eta horrela hauteskunde-propagandaren posta-bidalketak saihestu ditzakezu. Beste hainbat pertsonek bezala, hala egin nuen. Espainiako Estatistika Institutuko webgunean sartu, eta tramitea burutu nuen. Orduerako milioi erdi pertsona ginen.

Nahiz zarrastelkeria eta baliabideen alferreko erabilera ekiditeko, edo egoerarekiko gure nekea adierazteko, uste dut politikariak dagoeneko konturatu direla sisteman akats ugari daudela.

Gobernua eratzeko ados jarri ez ziren arren, eta beste hauteskunde-deialdia egin zuten arren, ez zegoen aukerarik guztiongan eragina duten funtsezko gaietan ados jartzeko, batzuei zein bestei bozkatu?

A edo B bozkatu arren, guztiongan du eragina pentsioekin gertatzen dena (eredugarriak dira gure nagusiek egiten dituzten protesta baketsu eta jarraituak, esker mila!), zerbitzu publikoekin (esaterako kalitatezko osasun-sistemarekin eta hezkuntzarekin), lan eskubideen aitorpen eta parekatzearekin (aitatasun baimena eta soldataren parekatzearekin, adibidez) edo klima-aldaketarekin.

Hala ere, legea jarri zuenak, tranpa jarri zuen. Hauteskunde-propaganda postaz ez jasotzeko eskaera egin arren, alderdi politiko batzuek estrategia galanta erabiltzen dute: gutun-azalean herritarraren izen-abizenak ipini beharrean, "…. helbidean bizi diren hautesleak" jartzen dute. Politikariak adostasun batera heldu diren honetan, gai hau ere konpondu beharko dute.

> "Uste dut politikariak dagoeneko konturatu direla sisteman akats ugari daudela"

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

## SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. ✆ 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

## LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketak orduka. ✆ 662 012 834.

Zazpi urtetako esperientzia eta Eusko Jaurlaritzako titulazioak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Orduka, gauez zein egunez. ✆ 603 514 085.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka. ✆ 681 310 989.



<u>Azaroaren 8an</u>
Oso marimatraka baina... Lucía beti maitagarria!!! Zorionak sorgintxo!!! Hiru urte bete dituzula. Asko maite zaitugu. Musu erraldoi bat Libe, amatxo eta aitatxoren partez.



<u>Azaroaren 24an</u>
Zorionak Mikel etxeko txikiari, bi urte haundi!!!! Zorionak etxeko denon partez!!! Muxu handi-handi bat.



<u>Azaroaren 18an</u>
Zorionak Ander zure 5. urtebetetzean. Egun zoragarria pasatu eta segi hain alaia izaten!! Ama, aita eta Oihaneren partez.



<u>Azaroaren 20an</u>
Zorionakkkk Maialen!!! 3 urte egingo dituzu-eta. Muxu handi bat familiaren partez. Maite zaitugu.



<u>Azaroaren 5ean eta azaroaren 22an</u>
Zorionak Beñat eta Markel! Gure mutiltxoek 5 eta 8 urte egin dituzte. Primeran ospatu eguna, muxu handi bat familia guztiaren partez!



<u>Abenduaren 30ean</u>
Zorionaaak mutil haundi!! 3 urtetxo eder gure artian. Topera disfrutau eta patxo pila etxekuen partez. Maitxe maitxe.



<u>Abenduaren 8an</u>
Zorionak Ione zure 5. urtebetetzean, ama, aita eta familia guztiaren partez! Asko maite zaitugu laztana! Mila patxo!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: **drogeten@gmail.com** helbidera.

Azken eguna: **Abenduaren 11.**

Enter informática
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia
- Añada Real
- Yllera taldea
- Gomez Cruzado
- Pazo Señorans
- Vicente Gandía
- Oriol Rossell
- Astobiza txakolina
- Txakoli Akarregi
- Milana
- La Loca Juana
- nítida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

## MALLABIA 1998



Argazki honetan 1998. urteko Mallabiko pilota taldea agertzen da. Bertan agertzen dira: Agustin Solozabal, Iñaki Garitagoitia, Xabat Areitioaurtena, Alain Benito, Ander Martin, Ortzi Gisasola, Julen Pradera, Mikel Garcia, Aaron Pan, Unai Jaka, Iker Serena, Carlos Garcia, Albino Pradera, Gorka Ozaeta, Segio Rubia, Endika Abaskal, Pedro Mari Areitioaurtena, Xabat Uzuriaga, Beñat Pildain, Eneko Zalduegi, Nekane Pradera, Yessika Casado, Iñigo Pradera, Txomin Arregi, Itsaso Pradera, Ricardo Altube, Unai Uzuriaga, Ander Olalde, Andoni Aldape, Ibai Zubiria, Oier Zubiria, Luken Aranburu, Josu Uribelarrea, Amaiur Pildain, Haritz Aranburu eta Erik Castro.

## ERMUA 1969



Argazkiak 50 urte egin berritan, lagunarte ederrean ikusten dira ezkerretik eskumara Jesus Mari Elgea, Luis Mari Mugika, Jose Luis Izagirre eta Dani Bilbao.



Drogetenitturri, 283 zk.






**Uda ostean hasi dira plazako estalpea eraikitzeko lanak. Herritarrei egindako galdeketa baten bitartez erabaki zen eraiki beharreko estalpe mota, eta 16 urtetik gorakoen %10 baino gutxiagok eman zuen bere iritzia galdeketa horretan.**
**Zure ustez, beharrezkoa da Ermuko plazan estalpe bat jartzea?**




Azaroaren 12tik 15era egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 160 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

**Jabi Vidal Mendoza** Euripean dantzatu nahi dugu!




URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea ✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

## ZINEA

**Hilaren 30etik 2ra**
**Hilaren 7tik 9ra**
**Hilaren 14tik 16ra**
**Hilaren 21etik 23ra**
**Hilaren 28tik 30era**
Zehaztu gabeko filmeak eta ordutegiak. Ermua Antzokian.

## ZINE-KLUBA

**Hilak 5**
**Hilak 12**
**Hilak 19**
**Hilak 26**
Zehaztu gabe. Ermua Antzokian. 20:30ean.

## UMEENTZAKO ZINEA

**Hilak 1**
**Hilak 8**
**Hilak 15**
**Hilak 22**
**Hilak 29**
Zehaztu gabe. Ermua Antzokian. 20:30ean.

## ANTZERKIA

**Hilak 20:**
"Romancero gitano", Nuria Espertekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€

## MUSIKA

**Hilak 13:**
Kontzertua: Rayden. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 12€

**Hilak 14:**
Flameko-jazz kontzertua: Aurora. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 10€

**Hilak 18:**
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30ean. Antzokian. Sarrera doan.

**Hilak 27:**
Kontzertua: Sole Giménez. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 12€

## GABONETAKO UMEEN KANPAINA

**Hilak 24:**
Olentzero txiki (kalejira). 11:00etatik aurrera, plazatik irtenda.

**Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra:**
Gabonetako umeen parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka bideo-konsolak, jumping, tailerrak… 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Sarrera: 2€

**Hilak 28:**
Umeentzako antzerkia: "Pinotxo", Glu-Glu Produkzioak. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4€

**Hilak 30:**
Umeentzako magia ikuskizuna: "Liluraren laborategia", Kulturmagic taldea. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4€

**Hilak 31:**
Olentzero (kalejira). 18:00etatik aurrera, plazatik irtenda.

**Urtarrilak 3:**
Ume eta gazteentzako ikuskizuna: "Go!azen 6.0", Pausoka. 17:00etan eta 19:00etan. Sarrera. 6€

**Urtarrilak 5:**
Errege Magoen kabalgata (kalejira). 18:00etatik aurrera. Sallabente ikastetxetik.

## UMEENTZAKO BESTELAKO EKITALDIAK

**Hilak 14:**
Umeentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 21:**
Umeentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 2tik 15era arte:**
Argazkiak: 2018ko oporrak lehiaketara aurkeztutako lanak. 18:00etatik 20:00etara. Lobianon.

**Hilaren 16tik urtarrilaren 29ra:**
Argazkiak: "Non Nor", KLE artista. 18:00etatik 20:00etara. Lobianon.

**Hilaren 18 eta 19an:**
Gabonetako zentro apaingarriak. Merkatu Plazan.

## BESTELAKOAK

**Hilak 3:**
Euskararen Eguna: hainbat ekitaldi.

**Hilak 14:**
Antzinako kotxeeen erakusketa. 9:00etatik aurrera. Plazan.

**Hilak 28:**
Gabon zahar gaueko kanpaien aurrerapen-festa. 00:00etan. Martxoaren 8ko plazan.

Patxi López

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# Irale 20 URTE AÑOS

Aurten **Irale Hortz Klinikak** lehiaketa batean parte hartuko du:
**“El barrio que mejor sonríe de España”**.
Estatu mailako lehiaketa da,
eta gure pazienteek eta pazienteak ez direnek ere parte hartu dezakete.

Parte hartzaileen artean ***El rey león*** ikuskizuna ikusteko
**30 sarrera bikoitza** zozketatuko dira, autobus bidaia barne.
Zenbat eta pertsona gehiago parte hartu, saria irabazteko
aukera gehiago!

*El rey león* ikuskizunerako
sarrerak irabazi nahi?

Disney EL REY LEÓN
EL MUSICAL QUE CONMUEVE AL MUNDO

Zatoz **Irale Hortz Klinika**ra,
eta eman izena!!

Zeharkalea 8, behea ♥ 943 17 71 34 ♥ clinicadentalirale.com

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44

irale
Hortz Klinika
Clínica Dental
C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Hortz klinika berritu eta handitu dugu
San Inazio 4
Ermua
Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com

NATURA
Cristina García Pérez
Belar-denda eta dietetika
· Elikagai biologikoak
· Terapia naturalak
· Naturopatarekin kontsultak
· Masajeak
· Dietistarekin kontsultak
· Kosmetika biologikoa
Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
943176594/naturcriss77@hotmail.com

# OSASUN GIDA

fisioterapia
eta osteopatia
zentroa
aitziber
Aitziber Fernández
Telf. 943 17 60 95
629 88 70 89
Sexto Centenario 13,behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKA + CLÍNICA DENTAL
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264
· P.A.D.I
· IMQ
· SANITAS
· DENTYRED
· AZKARAN
· OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

FUB
Mediku psikiatra · Psikosomatika
Psikoterapia psikoanalitikoa
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo
688 63 28 76 telefonoetara
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera